COMPTE-RENDU DU CONSEIL MUNICIPAL DU JEUDI 11 JANVIER 202

Le onze janvier deux mille vingt-quatre, à dix-neuf heures, le Conseil Municipal d'UZTARITZE, régulièrement convoqué, le 4 janvier deux mille vingt-quatre, s'est réuni au nombre prescrit par la loi, sous la présidence de Monsieur Bruno CARRERE, Maire.

2024ko URTARRILAREN 11KO HERRIKO BILTZARRAREN BILDUMA.

Bi mila eta hogeita lauko urtarrilaren hamekan, arratseko zazpitan, UZTARITZE-ko Herriko biltzarra, bi mila eta hogeita lauko abenduaren lehenean ohiz gomitatua, bildu da legeak manatu kopuruan, Bruno CARRERE Jaun Auzapezaren lehendakaritzapean.

| Nombre de conseillers *Kontseilari kopurua* | |
|---|---|
| en exercice *hautatuak* | 29 |
| présents *hor zirenak* | 24 |
| procurations *ahalordeak* | 4 |
| votants *bozkatu dutenak* | 28 |

Etaient présents / Hor ziren : M. CARRERE Maire / Auzapeza, Mmes GALLOIS, MARTY-CHALEON, SEMERENA – OLAIZOLA anderea, MM. GOYHENECHE, IBARBOURE, BLAIN, MAILHARRANCIN jaunak Adjoints / Axuantak, Mmes, DOYHENART-ARANCED, MOUESCA, ETCHEBARNE, LARRIEU, DO COITO-SABIO andereak, MM. ESTEINOU, ARBURUA, ROUGET, SERRANO, SOCODIABEHERE, SARRATIA, CENDRES, DARQUY, DESGROLARD, RUYS, LASTIRI jaunak Conseillers municipaux / Herriko hautetsiak.

Etaient excusés / Barkatuak : Mme CEDARRY anderea (procuration / ahalordea à M. CARRERE jaunari), Mme ARMSPACH-LAGAN anderea (procuration / ahalordea à M. BLAIN jaunari), Mme MOULIA- CASABONNET anderea (procuration/ahalordea à Mme MOUESCA andereari), Mme BONTAN anderea (procuration / ahalordea à M. RUYS jaunari)

Absent/ falta den hautetsia : M. URRUTIA jauna

Secrétaire de séance / Bilkurako idazkaria : Madame Nicole MOUESCA anderea

* APPROBATION A L'UNANIMITE DU PROCES-VERBAL DU CONSEIL MUNICIPAL DU 8 DECEMBRE 2023

* 2023KO ABENDUAREN 8KO HERRI KONTSEILUKO AKTAREN ONARPENA AHO BATEZ.

* URBANISME – VOIRIE – TRAVAUX

1- OFFRE DE CONCOURS – Sylviane POTIGNY NATUROPATHE – SCHEMA D'INFORMATION LOCALE

Monsieur Goyheneche présente le rapport suivant,

Les travaux publics communaux sont de la responsabilité des communes. Ainsi, tous travaux concernant les voies communales relèvent de la compétence des communes qui en sont propriétaires et doivent en assurer par conséquent la charge financière.

Le droit administratif admet toutefois que les personnes privées (physiques ou morales) puissent participer volontairement à ces travaux, par le biais des offres de concours.

* HIRIGINTZA – BIDEAK – OBRAK

1- LAGUNTZA ESKAINTZA – Sylviane POTIGNY NATUROPATA – TOKIKO INFORMAZIO ESKEMA

Goyheneche jaunak txostena aurkeztu du:

Herriko obra publikoak herrien ardura dira. Beraz, herriko bideetan eta baserrialdeko bidexketan egiten diren obra guziak haien jabe diren herrien eskumenekoak dira, eta herriek dituzte dagozkien gastuak beren gain hartu behar.

Administrazio-zuzenbidearen arabera, pertsona pribatu, pertsona fisiko ala moral nahiantek obra horietan parte hartzen ahal dute, laguntza eskaintzak eginez.

L'offre de concours peut être définie comme un engagement d'une personne privée physique ou morale par lequel elle décide de participer aux dépenses d'établissement, d'entretien ou d'exploitation d'un ouvrage public, soit en fournissant une somme d'argent, soit en faisant gratuitement l'apport d'un terrain, soit en effectuant certains travaux ou prestations, soit encore en livrant certaines fournitures.

Mme POTIGNY Naturopathe a souhaité disposer d'une signalétique adaptée au titre du schéma d'information locale en disposant de deux panneaux signalant son activité dénommée « Naturopathe » au quartier Arrauntz.

Cette offre prend la forme d'un versement d'une somme forfaitaire de 160€.

Il vous est proposé de l'accepter.

Après en avoir largement délibéré, le Conseil Municipal, à l'unanimité :

- ACCEPTE l'offre de concours proposée par Mme POTIGNY Sylviane d'un montant de 160€ ;
- AUTORISE Monsieur le Maire à engager toute démarche nécessaire à cet accord ;
- PRECISE que les crédits seront prévus sur le budget de l'exercice 2024

Laguntza-eskaintza engaiamendu bat da. Horren bidez, pertsona pribatu fisiko edo moralek erabaki dezakete obra publiko baten ezartzeko, mantentzeko edo ustiatzeko gastuetan parte hartzea, bai diru-kopuru bat emanez, bai lursail bat urririk eskura emanez, bai zenbait lan edo zerbitzu eginez, bai hornidura batzuk emanez.

POTIGNY andereak, naturopata baita, bide seinale egokituak nahi ditu, tokiko informazio eskemaren baitan. Hain zuzen, Arruntza auzoan "naturopata" jarduera adierazten duten bi seinale ezarrarazi nahi ditu.

Eskaintza hori 160 €ko ordainketan datza.

Onartzeko proposatzen dizuegu.

Luzaz eztabaidatu ondoan, Herriko kontseiluak, aho batez :

- Sylviane POTIGNY andereak proposatu 160 €ko laguntza eskaintza ONARTZEN DU;
- Auzapez jaunari akordio horrek behar izanen dituen desmartxa ororen egiteko BAIMENA EMATEN DIO.

- Behar diren kredituak 2024ko aurrekontuan pentsatuak direla ZEHAZTEN DU.

## 2- NOUVELLE DENOMINATION DE LA PLACE DE LA MAIRIE

Monsieur Goyheneche présente le rapport suivant,

La Mairie ayant déménagé au 84 place du Labourd, il vous est proposé de renommer la Place de la Mairie par la Place de Gaztelua - Gazteluko Plaza.

Cette formalité permettra de faciliter la fourniture de services publics, tel que les secours et la connexion aux réseaux, et d'autres services commerciaux comme la délivrance du courrier et des livraisons, d'identifier clairement les adresses des immeubles.

Considérant l'intérêt communal que présente la dénomination des voies, il est proposé de dénommer la place :

- Gazteluko plaza – Place de Gaztelua

Après en avoir largement délibéré, le Conseil Municipal, à l'unanimité :

## 2- HERRIKO ETXEKO PLAZAREN IZEN BERRIA

Goyheneche jaunak txostena aurkeztu du:

Herriko etxea Lapurdiko plazako 84.era mugitu denez, herriko etxeko plazari izen berri honen ematea proposatzen dizuegu: place de Gaztelua - Gazteluko Plaza.

Horrela, zerbitzu publikoen ematea erraztuko da; adibidez, sokorriak eta sareetara lotzea. Halaber, beste merkataritza zerbitzu batzuk ere aiseago eginen dira; hala nola, gutunen eta paketeen banatzea, eraikinen argikiago identifikatuz.

Bideen izendapenaren garrantzia kontuan izanik, plaza horri izen honen ematea proposatzen dizuegu:

- Gazteluko plaza – Place de Gaztelua

Eztabaidatu ondoan, Herriko kontseiluak, aho batez :

- **APPROUVE** la dénomination proposée Gazteluko plaza – Place de Gaztelua
- **CHARGE** Monsieur le Maire d'engager toutes actions nécessaires à l'application de cette décision

- Gazteluko plaza – Place de Gaztelua izena **ONARTU DU.**
- Erabaki horren gauzatzeko beharrezkoak diren ekintza guzien abiaraztea Auzapez jaunaren **ESKU UZTEN DU.**

## 3- DENOMINATION DE LA VOIE CHEMIN INDA

Monsieur Goyheneche présente le rapport suivant,

Il vous est proposé de dénommer une nouvelle voie Indako bidea - Chemin Inda. Cette formalité permettra de faciliter la fourniture de services publics, tel que les secours et la connexion aux réseaux, et d'autres services commerciaux comme la délivrance du courrier et des livraisons, d'identifier clairement les adresses des immeubles en disposant d'une numérotation de voirie.

Il est proposé de dénommer la voie :

- Indako bidea – Chemin Inda

Après en avoir largement délibéré, le Conseil Municipal, à l'unanimité :

- **APPROUVE** la dénomination proposée Indako bidea – Chemin Inda
- **CHARGE** Monsieur le Maire d'engager toutes actions nécessaires à l'application de cette décision

## 3- CHEMIN INDA BIDEAREN IZENA

Goyheneche jaunak txostena aurkeztu du:

Bide berria Indako bidea – Chemin Inda izendatzea proposatzen dizuegu. Horrela, zerbitzu publikoen ematea erraztuko da; adibidez, sokorriak eta sareetara lotzea. Halaber, beste merkataritza zerbitzu batzuk ere aiseago eginen dira; hala nola, gutunen eta paketeen banatzea, eraikinen argikiago identifikatuz, bide zenbakiak ukanen baitituzte.

Bide hori honela izendatzea proposatu da:

- Indako bidea – Chemin Inda

Eztabaidatu ondoan, Herriko kontseiluak, aho batez :

- Indako bidea – Chemin Inda izena **ONARTZEN DU**

- Erabaki horren gauzatzeko beharrezkoak diren ekintza guzien abiaraztea Auzapez jaunaren **ESKU UZTEN DU.**

## * FINANCES – ACTION ECONOMIQUE – RESSOURCES HUMAINES

## 4- ADMISSIONS EN NON-VALEUR INFERIEURES A 100€

Madame Semerena-Olaizola présente le rapport suivant.

Vu l'article 173 de la loi n° 2022-217 du 21 février 2022 relative à la différenciation, la décentralisation, la déconcentration et portant diverses mesures de simplification de l'action publique locale, dite loi 3DS, modifiant l'article L.2122-22 du Code général des collectivités territoriales ;

Vu le décret n° 2023-523 du 29 juin 2023 relatif au seuil plafond de délégation des décisions d'admission en non-valeur et aux conditions dans lesquelles le maire, le président du conseil départemental et le président du conseil régional rendent compte à l'assemblée délibérante de l'exercice de cette délégation ;

## * FINANTZAK – EKINTZA EKONOMIKOA – BALIABIDEAK

## 4- 100 € BAINO GUTIAGOKO EZO-AK

Semerena-Olaizola andereak txostena aurkezten du :

Lurralde elkargoen kode nagusiko L.2122-22 artikulua aldatu zuen Ezberdintzeari, deszentralizatzeari eta deskontzentratzeari buruzko eta tokiko ekintza publikoa sinplifikatzeko hainbat neurri ekartzen dituen 2022ko otsailaren 21eko 2022-217 legearen (3DS legearen) 173. artikulua kontuan izanki;

2023ko ekainaren 29ko 2023-523 dekretuak ez balio onartzeko gaitasunaren besterentzearen gehieneko zenbatekoa finkatzen du, baita auzapezak, departamendu kontseiluko lehendakariak eta eskualde kontseiluko lehendakariak biltzar erabakitzaileari ordezkaritza horren berri emateko baldintzak ere. Dekretu hori kontuan izanik;

Herriko kontseiluak Uztaritzeko auzapezaren esku utzi gaitasunei buruzko 2020ko uztailaren 15ko deliberamendua kontuan izanik;

Vu la délibération n° 1 en date du 15 juillet 2020 relatives à la délégation de compétences octroyée par le Conseil municipal à monsieur le Maire d'Ustaritz ;

L'article L.2122-22 du Code général des collectivités territoriales dispose que le Conseil municipal peut déléguer au maire une partie de ses attributions pour la durée du mandat.

L'alinéa 30° de l'article L.2122-22 du Code général des collectivités territoriales prévoit que le maire peut avoir délégation pour "admettre en non-valeur des titres de recettes, ou certaines catégories d'entre eux, présentés par le comptable public".

Conformément audit article, la délégation que le Conseil municipal peut conférer au maire pour admettre en non-valeur les créances irrécouvrables est fixé à 100€, seuil plafond déterminé par décret du 29 juin 2023, visé supra. Après examen des propositions d'admissions en non-valeur, présentées par le comptable public, le maire peut ainsi prononcer l'admission en non-valeur par décision.

Le maire doit rendre compte au moins une fois par an de ses décisions au Conseil municipal au moyen d'un état listant les créances admises en non-valeur et les motifs ayant présidé à cette admission. Il doit tenir à la disposition du Conseil municipal les pièces produites à l'appui de la demande d'admission en non-valeur présentée par le comptable public.

Il est proposé aux membres du Conseil municipal de déléguer à monsieur le Maire l'admission en non-valeur des titres de recettes, présentés par le comptable public et fixe le seuil maximal à 100€. Il rendra compte une fois par an au Conseil municipal des décisions qu'il aura prises.

Après en avoir largement délibéré, le Conseil Municipal, à l'unanimité :

- DÉLÈGUE à monsieur le Maire la compétence définie ci-dessus.

Lurralde elkargoen kode nagusiko L.2122-22 artikuluari jarraiki, herriko kontseiluak bere gaitasunetako batzuk auzapezaren esku utz ditzake, agintaldirako.

Lurralde elkargoen kode nagusiko L.2122-22 artikuluaren 30. atalari jarraiki, auzapezak gaitasun hau ukan dezake: "kontulari publikoak aurkeztu irabazi-agiri batzuen edo irabazi-agiri sail batzuen ez-balio gisa onartzea".

Artikulu horri jarraiki, herriko etxeak auzapezaren esku utz dezakeen berreskuratu ezin diren zenbateko horien ez-balio gisa onartzeko gaitasuna 100€-koa da. Gehieneko zenbateko hori gorago aipatu 2023ko ekainaren 29ko dekretuan finkatu zen. Kontulari publikoak aurkeztu ez-balio onartzeko proposamenak aztertu ondotik, auzapezak zenbateko batzuen ez-balio onartzea erabaki dezake.

Auzapezak herriko kontseiluari gutienez urtean behin eman behar dio bere erabakien berri, ez-balio onartu zenbatekoak eta erabaki horren hartzeko arrazoiak agerrarazten dituen zerrenda bat aurkeztuz. Kontulari publikoak aurkeztu ez-balio onartzeko galdearen onartzeko baliatu agiriak herriko kontseiluaren eskura utzi behar ditu.
Herriko kontseiluko kideei proposatu zaie kontulari publikoak aurkeztu irabazi agirien ez-balio onartzeko gaitasuna auzapezaren esku uztea, eta gehieneko zenbatekoa 100€an finkatzea. Herriko kontseiluari hartu erabakien berri urtean behin emanen dio.

Eztabaidatu ondoan, Herriko kontseiluak, aho batez :

Gorago zehaztu gaitasuna auzapez jaunaren ESKU UZTEN DU.

## 5- RECRUTEMENT ET REMUNERATION D'UNE EQUIPE DE 20 AGENTS RECENSEURS

Mme Marie-France SEMERENA indique aux membres du Conseil Municipal que les collectivités territoriales et leurs établissements publics peuvent recruter des vacataires.

Un vacataire, est une personne appelée, à la demande de l'administration, à réaliser une tâche précise, ponctuelle, limitée à l'exécution d'actes déterminés et non susceptible de se répéter de façon régulière dans le temps (étude, expertise, etc...). L'emploi ne

## 5- 20 ERROLDA LANGILEKO TALDEAREN ENPLEGATZEA ETA ORDAINTZEA

Marie-France SEMERENA andereak herriko kontseiluko kideei jakinarazi die lurralde elkargoek eta dagozkien erakunde publikoek epe laburreko langileak enplega ditzaketela.

Epe laburreko langileak administrazioak deitzen ditu behin-behineko eginbehar zehatz baten egitera, denboran erregularki berriz gertatuko ez diren ekintza jakin batzuk egin ditzaten (ikerketak, aditu-txostenak, etab...). Enplegu horrek ezin du

correspond pas à un besoin permanent ou occasionnel et saisonnier de la collectivité. La rémunération est attachée à l'acte.

Il est proposé aux membres du Conseil Municipal de recruter 20 agents recenseurs sous contrat de vacation pour effectuer les missions d'agent recenseur pour la période du 02 janvier au 24 février 2024.

Il est proposé que chaque vacation soit rémunérée :

- du 02 janvier au 16 janvier 2024 (pour deux demi-journées de formation et pour la mission de reconnaissance), sur la base de l'indice brut 367 en référence au 1er échelon du grade d'adjoint administratif (valeur au 1er janvier 2024) ) pour une durée de 41 h pour la période ;
- du 17 janvier au 24 février 2024, la rémunération sera à la tâche selon le barème suivant :
    - 1.30 € brut, par feuille de logement remplie,
    - 1.80 € Bruts par bulletin individuel rempli.

Une prime de résultat est mise en place et sera attribuée selon un critère de progressivité selon le résultat, afin de favoriser l'implication des agents recenseurs. Elle sera versée à la fin de la période de collecte.
La base servant au calcul de cette prime représentera 30% de la rémunération totale brute de l'agent (hors participation aux frais d'essence qui fera l'objet d'un titre), et sera attribuée en fonction des résultats :

- Si l'agent obtient plus de 98% de retour sur son district, il percevra 100% de cette base ;
- Si l'agent obtient entre 80% et 97% de retour sur son district, il percevra 80 % de cette base ;
- Si l'agent obtient entre 50% et 79% de retour sur son district, il percevra 50% de cette base ;
- Si l'agent obtient moins de 50% de retour sur son district, il percevra 10% de cette base.

Les logements vacants ne seront pas pris en compte dans les taux de retour.

Une indemnité de transport forfaitaire d'un montant total de 150 € est mis en place, et sera attribuée aux 2/3 dans la paye de janvier 2024 et le 1/3 restant sera versé à la fin de la mission.

Après avoir entendu le Maire dans ses explications complémentaires et après en avoir délibéré,

Après en avoir largement délibéré, le Conseil Municipal, à l'unanimité :

- ANNULE le rapport n°19 du Conseil Municipal du 8 décembre 2023

elkargoaren behar iraunkor bat ala noiztenkako eta sasoikako behar bat ase. Soldata ekintzaren araberakoa da.

Herriko kontseiluko kideei proposatu die 20 langileren enplegatzea, epe laburreko kontratuekin, errolda eginkizunen egiteko, 2024ko urtarrilaren 2tik otsailaren 24ra.

Kontratu bakoitza honela ordaintzea proposatu die:

- 2024ko urtarrilaren 2tik urtarrilaren 16ra (bi formakuntza egun-erdiren eta lehen ezagutza misioaren egiteko), administrazio laguntzaileen mailako 1. hozkari dagokion 367 indize gordinaren hartzea oinarri (2024ko urtarrilaren 1.eko balioa), tarte horretan 41 orenen egiteko;
- 2024ko urtarrilaren 17tik otsailaren 24ra, ordainketa eginkizunaren arabera kalkulatzea, taula honen arabera:
    - 1.30 € gordin, bete egoitza-fitxa bakoitz,
    - 1.80 € gordin, bete banakako fitxa bakoitz,

Emaitza sari bat plantan emanen da, emaitzaren araberako gehikortasun-irizpidea baliatuz, errolda egileen inplikatzera bultzatzeko. Bilketa-aldiaren bukaeran emanen zaie.
Sari horren kalkulatzeko oinarria langileen sari oso gordinaren %30ekoa izanen da (ezantza gastuetarako zenbatekoa kanpo, hori bereiz jorratuko baita), eta emaitzen arabera emanen zaie:

- Langileak bere distrikan %98ko arrapostuak baldin baditu, oinarri horren %100 ukanen du;
- Langileak bere distrikan %80 eta %97 arteko arrapostuak baldin baditu, oinarri horren %80 ukanen du;
- Langileak bere distrikan %50 eta %79 arteko arrapostuak baldin baditu, oinarri horren %50 ukanen du;
- Langileak bere distrikan %50 baino guitagoko arrapostuak baldin baditu, oinarri horren %10 ukanen du;

Arrapostu tasa horien kalkulatzeko, etxe hutsak ez dira kontuan hartuko.

Langileek 150 €ko garraio-ordainsari finkoa ere ukanen dute. Zenbateko horren 2/3 2024ko urtarrileko sariarekin eskuratuko dute, eta azken 1/3a, eginkizuna bururatzean.

Auzapezaren azalpen gehigarriak entzun eta eztabaidatu ondoan,

Herriko kontseiluari galdegin zaio:

- **AUTORISE** le Maire à recruter 20 vacataires pour la période du 2 janvier au 24 février 2024 selon l'acte d'engagement présent en annexe.
- **DÉCIDE** de fixer la rémunération telle que définie ci-dessus.
- **PRÉCISE** que les crédits suffisants seront prévus au budget de l'exercice 2024.
- **ADOPTE** l'ensemble des propositions du Maire.

- 2023ko abenduaren 8ko herriko kontseiluaren txostenaren **EZEZTATZEA,**
- Auzapez jaunari 2024ko urtarrilaren 2tik otsailaren 24ra epe laburreko 20 langileren enplegatzeko **BAIMENAREN EMATEA**, erantsi engaiamendu-agiriari jarraiki.
- Soldata gorago aipatu baldintzen araberakoa izanen dela **ERABAKITZEA.**
- Behar diren kredituak 2024ko ekitaldiko aurrekontuan pentsatuak izanen direla **ZEHAZTEA.**
- Auzapezaren proposamen guzien **ONARTZEA.**

## 6- DOTATION D'EQUIPEMENT DES TERRITOIRES RURAUX (DETR) – REQUALIFICATION DES ESPACES PUBLICS D'ARRAUNTZ

Madame Marie-France SEMERENA présente le rapport suivant,

La Dotation d'Equipement des Territoires Ruraux (DETR) a été créée par l'article 179 de la loi de finances n°2010-1657 du 29 décembre 2010 et résulte de la fusion de la Dotation Globale d'Equipement (DGE) et de la Dotation de Développement Rural (DDR).
Il est proposé de présenter à une demande de subventionnement les travaux de requalification des espaces publics d'Arrauntz.

En effet, ce quartier exerce historiquement une fonction économique et sociale au sein de la commune, à l'instar du centre-bourg ou d'Herauritz. Pour autant, il présente certaines perspectives de progrès, en matière de qualité de vie et d'aménagement d'espaces publics structurants :

1. Prépondérance de la voiture,

2. La majorité des espaces publics sont imperméabilisés et revêtus de bitume, contribuant à la création d'îlots de chaleur et à la banalisation des lieux de vie collective,

3. Un stationnement non-rationnalisé, autour et sur le fronton, et qui occupe l'intégralité de la cancha (créant des conflits d'usage récurrent entre pilotaris et automobilistes),

4. Le réseau viaire, très fréquenté par tout type de véhicules, génère une forme d'insécurité de nature à limiter les déplacements doux, en particulier au niveau du carrefour qui est surdimensionné.

## 6- BASERRIALDEKO LURRALDEETAKO EKIPAMENDURAKO HORNIDURA (DETR) – ARRUNTZAKO EREMU PUBLIKOEN BIRKALIFIKATZEA

Marie France SEMERENA andereak txosten hau aurkeztu du:

2010eko abenduaren 29ko 2010-1657 finantzen legeko 179. artikuluak baserrialdeko lurraldeetako ekipamenduendako emaitza (DETR) finkatu zuen. Emaitza horrek aitzineko bi bateratzen ditu: ekipamendu emaitza orokorra (DGE) eta baserrialdeko garapenerako emaitza (DDR).

Arruntzako eremu publikoen birkalifikatzeko obrendako dirulaguntza galde baten aurkeztea proposatu zaio herriko kontseiluari.
Alabaina, auzo horretan, hainbat arlo hobetzekoak dira, eremu publikoei eta bizi kalitateari dagokienez:

1. Autoak nagusi dira;

2. Eremu publiko gehienak irazgaiztuak eta mundrunez estaliak dira, eta beraz, berotasun-guneak sortzen dira eta bizi kolektiborako lekuek balioa galtzen dute,

3. Aparkaleku arrazionalizatu gabea dago, frontoiaren inguruan antolatua, eta kantxa osoa hartzen du (horrek, maiz, erabilpen gatazkak sortzen ditu, pilotarien eta auto gidarien artean),

4. Bide-sarean ibilgailu anitz ibiltzen dira, orotarikoak, eta horrek lekua desatsegina bilakatzen dut, baita, batzuetan, ez segurua ere.

Malgré cet état de fait, ce quartier d'Arrauntz connait bel et bien un développement urbain et démographique qui ne se démentent pas :

- à l'image de la dynamique associative (ASCA, Comité des fêtes, Zortziko… puis Arruntzakoop),
- avec des implantations de commerces (au niveau de Plaza Berria et de Leku eder),
- avec des effectifs scolaires qui ne cessent de croître.

Dès lors, le quartier d'Arrauntz constitue ainsi un quartier à part entière à Ustaritz, et il importe qu'il soit à ce titre doté d'espaces publics générateurs de bien-être et de lien social.

Afin de répondre à cette ambition, et en concertation pleine et entière avec le comité de quartier, la commune envisage de répondre à chacun de ces enjeux en actionnant divers leviers :

- ➢ Apaiser la traversée du quartier en hiérarchisant les différentes voies, afin de garantir une mixité d'usage, de réduire l'utilisation de la voiture pour les trajets courts, puis de sécuriser les franchissements et les points durs,
- ➢ Végétaliser les espaces communs et désimperméabiliser les sols pour favoriser le cycle de l'eau et améliorer la qualité des lieux de rencontre, tout en créant ainsi des ilots de fraicheur,
- ➢ Restaurer la qualité architecturale du site, afin d'en faire un réel cœur de bourg,
- ➢ Développer l'usage du vélo pour diminuer l'impact de la voiture, et rapprocher le réseau cyclable du chemin de halage qui devient progressivement un marqueur des déplacements doux de la ville.

Après avoir défini l'ensemble de ces priorités dans le cadre d'une étude de définition menée avec le CAUE 64 (Conseil d'architecture, d'urbanisme et de l'environnement), la commune a recruté une équipe de maîtrise d'œuvre chargée de mettre en œuvre l'ensemble de ces préconisations dans un projet architectural qui sera décliné dans un programme de travaux qui démarrera au début du deuxième semestre 2024.

Le plan de financement du projet est arrêté comme suit :

Horiek horrela, herriak hainbat palanka baliatu nahi ditu egoeraren aldatzeko:

- Zeharkatzearen segurtatzea, bide mota ezberdinak hierarkizatuz, beren uztartzearen ontsa antolatzeko, bidaia laburrentzat autoen erabilpenaren murriztea, eta zeharkatzeetan eta leku zailetan segurtasunaren bermatzea,

- Eremu komunetan landareen ezartzea eta zolen berriz irazkor bilakatzea, uraren zikloaren laguntzeko, topaguneen kalitatearen hobetzeko eta freskotasun guneen sortzeko,

- Gunearen arkitektura-kalitatearen berrezartzea, egiazko herri barne bilaka dadin,

- Bizikletaren erabilpenaren garatzea, autoaren eraginen ttipitzeko, eta bizikleta-sarea zirga bidetik hurbiltzea, emeki-emeki herriko zirkulazio goxoaren gune bilakatzen ari baita.

Finantzamendu plana honela finkatua da:

| NATURE DES DÉPENSES<br>Directement liées au projet | Montant des dépenses HT | RECETTES | Montant | % |
|---|---|---|---|---|
| Etudes et honoraires divers | 24 840 | Aides publiques | 272 208 | 77,5 |
| - Etudes : | | Etat | | |
| - Maîtrise d'œuvre : | 24 840 | - DETR | 122 848 | 35 |
| - Honoraires divers : | | - Agence de l'eau/Fonds vert (renaturation des sols et espaces urbains) | 74 360 | 21,2<br>(30% des dépenses directement liées à la renaturation des sols) |
| Travaux | 326 153 | **Conseil Départemental**<br>(aide aux communes) | 75 000<br>(45 000 + 30 000) | 21,3<br>(15% de taux d'intervention + 10% « bonus Eaux pluviales - réimperméabiliser les sols ») sur un plafond de dépenses éligibles de 300 000€ |
| - Lot 1 : Aménagements de surface | 263 135 | AUTOFINANCEMENT | 78 785 | 22,5 |
| - Lot 2 : Espaces verts et mobilier | 63 018<br>(signalisation, inéligible) | | | |
| - Lot 3 : Réseaux secs et enfouissements | inéligible | | | |
| TOTAL | 350 993 | TOTAL | 350 993 | 100 |

Après en avoir largement délibéré, le Conseil Municipal, à l'unanimité :

- **SOLLICITE** les aides financières pour le projet de requalification des espaces publics d'Arrauntz, au titre de l'appel à projets de la DETR 2024, fonds verts et aide aux communes du CD64

- **APPROUVE** le projet de requalification des espaces publics d'Arrauntz tel que présenté en séance ;

- **ADOPTE** le plan de financement correspondant ;

Eztabaidatu ondoan, Herriko kontseiluak, aho batez :

- Arruntzako eremu publikoen birkalifikatzeko proiektuarendako dirulaguntza baten **GALDEGITEN DU**, 2024ko DETR hornidurari dagokion proiektu deialdia kari, funts berdea eta departamenduko herri laguntzari.

- Arruntzako eremu publikoen birkalifikatzeko proiektuaren **ONARTZEN DU**.

- Dagokion finantzamendu planaren **ONARTZEN DU;**

- Auzapezari proiektu horri lotu agiri guzien eta bereziki hirigintza arlokoen izenpetzeko **BAIMENA EMATEN DU .**

- AUTORISE le Maire à signer tout document afférent à ce projet notamment en matière d'urbanisme et de demandes de subventions

* QUESTIONS ORALES

* COMPTE-RENDU DE DELEGATION

*COMMUNICATIONS DU MAIRE ET DES ADJOINTS

* AHOZKO GALDERAK

* ORDEZKARITZEN BILDUMA

* AUZAPEZAREN ET AUZAPEZORDEEN KOMUNIKAZIOAK